

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan

Ainhoa Urzelai-Vicente¹

(orcid.org/0000-0001-5306-1788)

(Mondragón Unibertsitatea eta MHLI)

Laburpena: Lan honen helburu nagusia da euskal Haur eta Gazte Literaturak (hemendik aurrera HGL) memoria historikoa nola landu duen ezagutzera ematea, bereziki nola irudikatu diren Euskal Herriko gatazka armatuak, hala nola, Guda Karlistak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa edota euskal gatazka. Hizpide dugun sistema literario horrek 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera ekin dio memoria historikoarekin lotutako literatur testuak argitaratzeari, bereziki 90eko hamarkadatik aurrera. Helduei zuzendutako euskal literaturan eta inguruko HGLn baino beranduago bada ere, euskal HGLn XXI. mendean izan du benetako gorakada memoria historikoaren gaiak. Hori horrela, lan honek arestian aipatutako gatazka armatuen irudikapenak euskal HGLn nola egin diren azaltzeaz batera, gaiari buruz dagoen eskaintza zabalaren berri ematea du helburu.

Gako hitzak: Euskal haur eta gazte literatura, memoria historikoaren transmisioa, gerrak.

Abstract: The primary objective of this study is to analyze the ways in which Basque Children's and Young People's Literature (hereafter, CYL) has engaged with historical memory, with a particular focus on the representation of armed conflicts in the Basque Country, including the Carlist Wars, World War I, the Spanish Civil War, World War II, Francoism, and the so-called Basque conflict. The literary system under examination began incorporating literary works addressing historical memory from the mid-1970s onward, experiencing significant growth from the 1990s. Although this development emerged later than in Basque literature intended for an adult readership and later than in adjacent CYL, the 21st century has witnessed a marked increase in the presence of historical memory within Basque CYL. Accordingly, this study seeks not only to examine the ways in which armed conflicts have been

¹ Kapitulu hau MHLI ikertalde kontsolidatua garatzen ari den proiektu hauen baitan burutu da: US21/15 (UPV/EHU) eta PID2021-125952NB-I00 (MICIU/AEI/10.13039/501100011033 eta FEDER, UE).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

represented in Basque CYL, but also to provide a comprehensive overview of the extensive literary corpus dedicated to this thematic domain.

Keywords: Basque Children's and Young People's Literature, transmission of historical memory, war.

Memoria historikoaren agerpena euskal letretan

Gerraz eta garai gatazkatsuen oroimenaz hitz egitean, ezin aipatu gabe utzi memoriaren gaineko diskurtso eta lanak, hala teorikoak nola fikziozkoak, izugarri ugaritu direla azken hamarkadetan. Fenomeno hori memoriaren eztanda (*memory boom*) terminoarekin izendatu zuen Jay Winter (2006) historialariak eta esan daiteke 80ko hamarkadan izan zuela gorakada. 90eko hamarkadaren erdialdera arte eragile kultural eta politikoez ez zuten Gerra Zibilarekiko interes publikorik azaldu eta 1996tik aurrera hasi ziren isiltasun hitzarmena atzean utzi eta iraganaren berreskurapenari ekiten. Euskal Herriari dagokionez, fusilatutakoen gorpuen berreskurapena, hobiak ikertu eta aurkitzeko batzordea, biktimekiko zorra aitortzen zuten adierazpenak eta beste etorri ziren gero (Serrano, 2019). Espainiako Bigarren Errepublikaren 75. urteurrenaren harira, 2006a Memoria Historikoaren Urte izendatu zuten, Gerra Zibilaren biktimen eta ondorengo errepresio frankista jasan zuten guztien omenez. Horrekin batera, 2007an Memoria Historikoaren Legea jarri zen indarrean, “gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen”. Urte batzuk beranduago, 2022ko urriaren 21ean, Memoria Demokratikoaren Legea sartu zen indarrean, 2007ko legea ordezkatu zuena. Prozesu horiek eragin nabarmena izan dute literaturan eta ekoizpen kulturaletan, hain zuzen gatazka sozialen irudikapena eta iraganaren berreraikuntza bultzatu dutelako ikuspegi berritzaileetatik. Memoriaren berreskuratzeak eta oroimen-kultura deiturikoez historiaren kontakizun ofizialak zalantzan jarri dituzte, ikuspegi zientifiko hutsa lehenesten dituzten hurbilpenekin batera, testigantza eta subjektibotasuna lehenesten duten kontakizunak sustatuz. Paradigma aldaketa horrek aukera eman du eguneroko esperientziak eta historikoki baztertuak izan diren taldeen ahotsak barne hartzen dituzten diskurtsoak sortzeko, memoria kulturalaren iruditegia zabalduz eta aberastuz.

Euskal literaturari dagokionez, ikerketa akademiko ugari jarri diote arreta Euskal Herriko gatazka armatuek euskal literaturan izan duten irudikapenari (Egaña eta Zelaieta 2006;

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Gabilondo 2006; Toledo 2009; Ott eta de Pablo 2011; Barandiaran 2011; Olaziregi 2011, 2019; Cuadernos de Alzate 2011; Kortazar eta Serrano 2012; Zaldua 2012; Arroita eta Otaegi 2015; Agirre 2015; Olaziregi eta Ayerbe 2016; Serrano 2019; Rodríguez 2019). Hala ere, oro har, helduei zuzendutako literaturaren azterketari eman zaio lehentasuna eta HGLren kasuan, berriz, obra gutxi batzuk etengabe errepikatzen mugatu dira azterlanak. Era berean, berariaz HGLri eskainitako monografikoei dagokienez, hala hemengoetan nola erdaretan idatzitakoetan (Ruzicka, Vázquez eta Lorenzo 2005; Roig, Lucas eta Soto 2008; Roig, Ruzicka eta Ramos 2012; Roig eta Ruzicka 2014; Roig, Soto eta Neira 2016), oso gutxi izan dira aztertutako euskarazko literatur lanak eta aipatu direnean, Gerra Zibilarekin lotutako berberak ekarri dira gogora. Ildo horretan, Urzelai-Vicenteren (2024) doktore tesia mintzagai dugun gaiari buruzko euskal HGLko obren analisi kritiko eta sistematikoa eskaintzen duen lehenengo lana da². *Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literatura garaikidean* izeneko ikerlan horrek 77 obrako corpus bat jasotzen du, denak euskaraz idatziak, HGL moduan esplizituki katalogatuak eta euskal HGLren hastapenetatik 2023ko abendura arte argitaratuak. Gainera, katalogo bat dakar, zeinak aztergai dituen liburuei buruzko informazio orokorra eta teknikoa emateaz gain, liburu bakoitzak lantzen duen gerrari edo gatazka armatuari lotutako alderdi berezia ere zehazten duen. Azken hori interesgarria izan daiteke literatura testuen bidez gerrak jorratu nahi dituzten bitartekariarentzat.

Gatazka armatuen errepresentazioa euskal HGLn

Urzelai-Vicenteren (2024) ikerketak frogatzen du euskal HGLk uste baino gehiago heldu diola gure iragan gatazkatsuen errepresentazioari, modu aberats eta askotarikoan gainera. Hizpide dugun sistema literario horrek 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera ekin dio memoria historikoarekin lotutako literatur testuak argitaratzeari, bereziki 90eko hamarkadatik aurrera. Helduei zuzendutako euskal literaturan baino beranduago eta inguruko HGLn baino beranduago bada ere, euskal HGLn XXI. mendean izan du benetako gorakada memoria historikoaren gaiak. Aipatzekoa da gerra bakoitzaren irudikapena desorekatua izan dela, ez hainbeste alderdi kualitatibotik erreparatuta, baina bai, zalantzarik gabe, alderdi kuantitatiboari dagokionez.

² Lan osoa sarean eskuragarri dago: <http://hdl.handle.net/10810/71427>.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Gerra Zibila izan da, zalantzarik gabe, euskal HGLk gehien landu duen gatazka armatua, 30 liburu baino gehiagok hartu baitute guda hori hizpide. 1936ko gerrari buruzko lehenengo obra 1984an Pello Añorgak idatzitako *Pottoko* lana da eta data hori bat dator euskal HGL modernoaren sorrerarekin eta errealismo kritikoaren agerpenarekin euskal HGLn (baita oro har memoriaren ez tandarekin ere). Gerra Zibilari buruzko hurrengo obrak 90eko hamarkadatik aurrerakoak dira, adibidez, 1991ko Koldo Izagirreraren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* eleberria edo 1999ko Andoni Egañaren *Basarri* lana. Dena den, benetako gorakada XXI. mendean ematen da. Mintzagai dugun gaiari buruzko libururik aipagarriena (eta aipatuena) Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* da, zeinak bikain islatzen baitu euskarak eta euskal kulturak Gerra Zibilean jasan zuen errepresioa, baita garai horietan emakumeek egindako lan eskerga ere. Gerrari buruzko eleberri ugari aipa litezke, baina dagoen ugaritasuna erakusteko, gutxi batzuk nabarmendu nahiko nituzke. Leire Bilbao eta Maite Mutuberriak ondutako *Gerrak ez du izenik* album ilustratuak, zeinak sei urtetik gorako irakurlea duen helburu, Durangoko 1937ko bonbardaketa du gai nagusi eta gerra zein bere ondorioak azaltzen dira bertan, betiere Mirentxu izeneko neskatila baten begiradatik. Album ilustratua da ere Leire Bilbao, June San Sebastián, Kukai Dantza konpainia, Maite Larburu, David Bernués eta Jon Mayaren artean sortutako *Klera* liburua. 2024an argitaratu eta sei urtetik aurrerako irakurlea helburu duen lan hau gerra baten erdian harrapatuta dagoen ume baten kontakizun fikzionatua da, baina berezi egiten duena formatua da, izan ere, diziplina anitzen eta lengoaia artistiko ezberdinen parte-hartzearekin landutako lana da. Liburuan bertan QR kodeak aurki daitezke eta horietan kontakizunarekin lotutako ikus-entzunezkoak jaso ditzake irakurleak. Irakurle gazteenei zuzendutakoa den Dani Martirenak eta Ana Ibañezek sortutako *Amonarenean* *kean*, argazki zahar baten atzean amonak idatzitako errezetak abiatzen du transmisioa. Argazkian, faxistek hildako Antoni Benaiges i Nogués irakaslea ageri da bere ikasleekin batera eta istorio horri tiraka, fikziozko istorioan, aitonaren heriotzaren berri izango du protagonistak. Nobela grafikora jauzi eginda, Amaia Telleriaren eta Laida Ruizen *Elur gorrituaren egunak* lana aipatuko nuke. Gerra Zibilaren etorrerak familia euskaldun batean zein eragin duen erakusten du, eta horretarako, kide bakoitzaren lekukotzak harilkatzen dira. Azkenik, 36ko gerrarekin amaitzeko, Patxi Zubizarretak eta Yolanda Mosquerak ondutako *Beroki gorria* nabarmendu nahiko nuke, zeinak guda baino, Euskal Herria utzi eta erbestera alde egin behar izan zuten milaka haur horien istorioa dakarren.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Maiz ez da erraza Gerra Zibilaren eta Frankismoaren arteko bereizketa egitea, askotan jarraipen moduan ageri baita kontakizunean. Dena den, azken horri dagokionez, hogeii liburutik agertzen da diktadura garaia islaturik. Epe horri buruz ari garela, ezinbestean aipatu beharrekoa da Jonan Aranguren “Iharra” eta José Benito Mujika “Xenki” etakideen *Herrialde berdea* ipuina, 1974an argitaratutakoa. Lan azpimarragarria da, ez literatur balio handikoa delako, baina bai Frankismoari buruz hitz egiten duelako eta gai horren lehenengo agerpena delako euskal HGLn. Esan gabe doa atzerrian argitaratu eta klandestinoki egin zela haren hedapena Euskal Herrian. Aipatutako ipuina kaleratu eta urte batera, Anastasio Albisuren *20 Ipui eta antzerkitxo bat ikastolatarako* obrak ikusi zuen argia, zeinak Frankismoari egindako erreferentzia dakarren. Dena den, Frankismoari buruzko hurrengo lanak ez ziren 90eko hamarkadara arte argitaratu. Ezin aipatu gabe utzi aski ezaguna den Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* edo Patxi Zubizarretaren *1948ko Uda* eleberriak. Baina horiez gain, 2024an argitaratutako *Erbestearen memoriak. 37ko euskal haurrak* komikia aipatu nahiko nuke. Begoña Garrido eta Oscar Gorroñoren artean ondutakoa da eta fikziozko lana bada ere, benetako testigantzetan oinarrituta dago, izan ere, Garridok doktore tesirako burututako elkarrizketetatik sortua da. Diktadura garaia buruzko lanekin amaitzeko, gomendagarria da Juan Kruz Igerabidek 2023an idatzi eta Elena Odriozolaren irudiz hornitutako *Begi bat kokotean* eleberria. Igerabidek bere haurtzaroko oroitzapenak baliatuz eraikitako narrazioa da eta Frankismo garaiko eguneroko bizitza marrazten du egileak orriotan, betiere ume baten begietatik: Erligioaren eta elizaren presentzia, herriko festak, garaiko janzkera, eskola, askatasunik eza eta heriotza, besteak beste. Etapa honi buruzko lanekin amaitzeko, esanguratsua da Gerra Zibilari eta Frankismoari buruzko obretan istorioa biktimaren edo galtzailearen ikuspuntutik kontatua dagoela, beste hitz batzuetan esateko, fronte nazionalistaren ikuspuntutik. Galdu zen gerra ageri da.

Euskal gatazkari dagokionez, kontuan hartzeko agerpena izan du, izan ere, gai horri hogeita bederatzi lanek egin diote aipamena eta horietatik hamahirutan kontakizunaren hari narratiboan eragina dauka. Agerpen kronologikoari dagokionez, HGLn 90eko hamarkadan azaltzen dira lehen agerpenak (adibidez, gatazka gai zentrala den eta genero epistolarra baliatzen duen *Ainhoari gutunak* 1990ean, *Pike eta Pitito* 1994an eta *Harri barruko bihotz-borrokak* 1999an). Dena den, XXI. mendetik aurrera nabarmen handitzen da gai horien agerpena. Interesgarriak dira Patxi Zubizarretaren *Pikolo*, Xabier Mendigurenen *Txakurraren*

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

alaba eta Gaizka Arostegiren *Antipodak* eleberria. Hiru lan horietan, aita Euskal Herrian lan egiten duen guardia zibila izateak sortzen dituen ondorioak (batez ere harremanetan) islatzen dira. Azken eleberri horretan, etakide izateagatik aita preso duen gazte koprotagonista ageri da eta egoera horrek gaztearengan dituen ondorioak islatzen ditu kontakizunak. Euskal gatazkarekin lotutako gertaeraren bategatik gurasoetako bat preso dituzten haurrak dira nagusi gai hau lantzen duten literatur testuetan eta familiar bat urrutiko kartzelan preso izateak haiengan dituen ondorioak irudikatzen dira. Horren adibide dira, besteak beste, Joxerra Garziaren *Tunelaz bestaldean*, Xabier Mendigurenen *Hiru sopranoak*, Castillo Suarezzen *Nemo kapitainaren azken bidaia*, Izaro Lizarragaren *Zenbat lo* edo Joxemari Carrereren *Maritxipi eta Amatxo*. Horrez gain, manifestazioen eta presoek kartzelan bizi duten egoeraren berri ematen dute liburuek, baita alde bateko zein bestekoek burututako atentatu, bahiketa, atxiloketa, mehatxu, tortura eta hilketen berri ere. Mendeku, gorroto eta ezinikusi giro horretan noraezean dabiltzan gazteak ageri dira liburuetan, indarkeriazko sorgin-gurpil horretan kateatuta aurkitzen direnak. Ezin aurrera egin John Anduezen *Para bellum* eleberria aipatu gabe. Bi familia dira protagonista nagusiak, behinola lagun minak izandako bi baserritako semeak. Gerra Zibilak etsai bihurtuko ditu eta etsaigo hori ondorengoengan haziko da, herra kide guztiengan zabalduz. Eleberri horrek ongi erakusten du biolentziak indarkeria gehiago eragiten duela eta zurrumbilo horretan harrapatzen duen guztiak galtzaile irteten direla.

Agerpen txikiagoa izan dute euskaldunek pairatutako gainerako gerrek. Lehen Mundu Gerrari dagokionez, esanguratsua da jatorriz euskaraz idatzitako HGLko liburuetan ez dela gai zentrala izan, nahiz eta liburu gutxi batzuetan gerra horren aipamena agertzen den. Itzulpen bidez sartu dira guda horri buruzko lanak euskal HGL sistemara, baina horiek ez dira Euskal Herrian girotutakoak. Begoña Durruty idazle arizkundarrak, adibidez, Lehen Mundu Gerra hartzen du hizpide *Cherch 'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!* lanean. Hamabi urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako 58 orrialdeko nobela grafiko honetan bere familiaren bizipenak biltzen ditu egileak. Aitaren testigantza zuzena baliatu du egileak liburu hau ontzeko eta Frantzia eta Espainiaren arteko mugaren inguruan bizi den familia bat aurkezten du, zeina hainbat gerraren lekuko izan zen. Lehen Mundu Gerra, Bigarren Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Francoren diktadura eta Aljeriako independentzia gerra; maila txikiagoan edo handiagoan bada ere, horien guztien berri ematen du obrak.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Bigarren Mundu Gerrak lehenengoak baino presentzia altuagoa duen arren, corpora ez da oso zabala eta gai zentral gisa baino, zeharka aipatzen da. Hamabi urtetik aurrerako irakurlea helburu duen eta Eneko Bidegainek 2002an argitaratutako *Anbroxio* eleberriak islatzen du hobekien euskaldunek gerra hartan jasan zituzten ondorioak. Joanes itsasuarrek bizitako une zailak deskribatzen ditu obrak, baina baita, beste hainbat herritarrek kontzentrazio-esparruetan jasandako tratu inhumanoa, etxe-miaketak, salaketak, atxilotetak, nazien torturak, deportazioa, erresistentzia eta mugalaritza ere. Lan horrek euskal gatazka ere hartzen due hizpide, baita Gerra Zibila eta Frankismoa ere. Esan daiteke, beraz, euskaldunek bizi izandako gatazka politikoen gaineko ikuspegi zabala ematen duela. Modu azalekoan bada ere, Fernando Morillok hamalau urtetik gorako irakurleei zuzendutako *Arriskupean!* eleberriak 1933ko Alemaniako hauteskundeak, Hitler eta naziak hartzen ditu ahotan. Generoz aldatuta, komiki forma hartzen duten argitalpen batzuk aipa daitezke. Benetan interesgarria da Iban Zalduak eta Julen Rivasek ondutako *Azken Garaipena* lana. Hamabi urtetik gorako irakurleari zuzendutako 48 orrialdeko komiki ukroniko honek Hitlerrek Bigarren Mundu Gerra irabazi ondorengo 2052. urteko Alemanian kokatzen du irakurlea. Gertakari historiko ezagunaren moldaketa horrek, zientzia-fikzioaren laguntzarekin batera, bestelako gizarte bat irudikatzen du. Bigarren Mundu Gerrarekin eta gertakari historikoarekin lotuago, Jabier Erostarberen *Mattin. Basoko gidaria* komikia aipa daiteke. Hamar urtetik gorako irakurleei zuzendutako obra honek nazien okupazioa du hizpide eta istorioa Mattin artzain zuberotar gaztearen bidez ematen da. Aita erresistentzian sartuta dago eta semeak hegazkin naziak beheara botatuko pilotu bati muga pasatzen lagundu beharko dio.

Azkenik, Guda Karlitei dagokienez, ohartarazi beharrekoa da Euskal Herrian gerra horiei erreferentzia egitean Lehen Gerra Karlista eta Bigarren Gerra Karlista aipatzen direla, hurrenez hurren 1833tik 1840ra eta 1872tik 1876ra bitartean gertatutakoak, eta ez dela kontuan hartzen 1846 eta 1849 urteen artean izandako gerra, Martinenren Gerra izenez ezagutzen dena eta Euskal Herritik kanpo Bigarren Gerra Karlista izenez ere deitu izan dena (borrokaleku Katalunia izan zuena nagusiki). Hori argituta, eta Gerra Karlistek izandako agerpenari erreparatuta, esan daiteke arreta txikia jaso dutela. Lehen agerpena Lourdes Iriondok 1975ean kaleratutako *Buruntza azpian* antzerki lanean aurki dezakegu. Ez da askorik ageri gerrari buruz, baina istorioko haurrek sortzen duten antzerki obra Bigarren Guda Karlitan kokatuta dago. Garai bertsuan gertatzen dira Pako Aristiren *Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?* eleberriko

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

edo Aingeru Epaltzaren *Lur zabaletan* nobelako gertakariak. Lehen Guda Karlistari dagokionez, Gaizka Arostegi eta Julen Ribasen *Karlisten altxorra* eleberria aipa daiteke, edo gerra bera modu zuzenagoan aipatzen duen Bernardo Atxagaren *Sara izeneko gizona* lana. Gudaz ematen den informazio nahiko zabala aurki daiteke fikzioa eta errealitatea uztartzen dituen Yolanda Arrietaren *Argiaren alaba* lan hibridoan. Liburu gomendagarria da euskal literaturan azpimarra berezia merezi duen Bizenta Mogelen bizitza eta obrara gerturatzen duelako irakurlea gaurkotasunetik abiatuta³.

Aurreko ataletan mintzagai diren gatazka horiez gain, aipatzekoa da Euskal Herrikoekin batera kanpoko beste gerra edo liskar politiko batzuk ageri direla, esaterako, Aljeriako, Arrifeko Afganistango, Irakeko edo Vietnamgo gerrak, Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketak, Sahara Mendebaldeko independentziaren aldeko borroka, Palestina eta Israelen arteko gatazka amaigabea edo Irlandako gatazka. Arestian egindako baieztapena esanguratsua da, obra hauek irakurle gazteari erakusten baitiote bere adin bertsuko haurrek beste testuinguru (geografiko eta ekonomiko) batzuetan bizi duten egoera latza. Besteak beste, haur soldaduak, gerrako haurrak edo pobrezian murgilduta bizi diren umeak ageri dira lanetan. Azpimarratzekoa da gatazka armatuari buruzko ikuspegi negatiboa ematen dela obra gehienetan eta gerran edo gatazkan inplikaturakoak kaltetun ateratzen direla, oro har. Beraz, irakurle gazteak inferi dezake gatazka armatuek ondorio hondagarriak dakartzatela. Haurren presentzia aipatu dugula, aipatzekoa da memoria historikoari buruzko lanak izanik ere, haur protagonistak direla nagusi alde handiz (oro har esan daiteke pertsonaiek berariazko irakurlearen adin bertsua dutela) eta errealitatea haien ikuspuntutik ematen dela.

Genero literarioari erreparatuz gero, argi ikusten da narratibak duen gailentasun ia erabatekoa, baina espero izatekoa da, narrazio lanak baitira nagusi euskal HGLn. Espero izatekoa den moduan, memoria historikoari buruzko irakurle gazteenei zuzendutako lan gehienak ipuinak eta album ilustratuak dira, eta adinean gora egin ahala, eleberriek hartzen dute garrantzia. Korrante literarioari begiratu bat emanez gero, lehenik eta behin errealismoaren bidetik doazen literatur lanen nagusitasuna azpimarratu beharko genuke, gaineratuz, errealismo kritikoaren barruan kokatzen direla horietako asko. Beste gutxi batzuek,

³ Yolanda Arrietak Bizenta Mogelen ikusgarritasunaren alde egindako lan eta ekarpenak Urzelai-Vicenteren (2021) lanean aurki daitezke.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

ordea, errealismo fantastikoaren emaritik edaten dute. Azken horren adibide dira, besteak beste, *Pikondoaren balada* edo *Hari single bat*. Horiekin batera, ukitu fantastikoa du ere *Itsas azpiko sekretua* eleberriak, zeinetan sirenak agertzeaz gain, Ondarretako kartzela itsas azpian agertu eta desagertzen den. Fantasiaren erabilera horrek ez du irakurlea errealitate konkretutik abstraitzeko helburua eta elementu fantastikoak txertatu arren, errealitatea islatzen da, hau da, gerraren ondorio gordinak aurkezten zaizkio irakurleari. Are gehiago, fantasia erabiltzen da kritika soziala egiteko.

Literatur lan batzuetan, mintzagai hartzen den garaiko benetako argazkiak, guda-kantuak, egunkarietako berriak edo bestelako dokumentu historikoak tartekatzen dira eta elementu horiek benetakotasuna ematen diote narrazioari, hau da, kontakizunaren egiantzekotasuna sendotzeko baliabideak dira. *Larunbatean Bukowskin* liburuan, adibidez, ETArek agiria ageri da; *Urtebete itsasargianen*, Jose Antonio Agirre lehendakariak egindako zina; *Para bellumen*, Francok 1939ko apirilaren 1ean gaztelaniaz idatzitako berria, zeinarekin Gerra Zibilaren amaiera iragarri zuen; eta *Begi bat kokotean*, *Amonarenean kea*, *George L. Steer*, *Gernikan izan zen kazetaria* eta *Gerrak ez du izenik* obretan, berriz, garaiko benetako argazkiak. Azken lan horretan, Durangoko bonbardaketa islatzen da eta Gerediaga elkartearen Durango aldeko argazkiak ageri dira, marrazkilariak *collage* teknika erabilita sortutako irudietan. Elementu horiez gain, Colomerrek (2010: 167) aipatzen dituen korronte postmodernoen HGLn sartutako osagaiak ageri dira aztertutako obretan. Batetik, liburuen eta hainbat kultur sistemen (zinema, musika edota pintura) arteko testuarterko aipamenen jokoak; eta bestetik, hainbat testu moten txertaketa (abestiak, aldizkarietako lerroburuak, asmakizunak eta abar) eta tradizio desberdinetako generoak uztartzea. Intertestualitate-jokoak bereziki azpimarragarriak dira *Urtebete itsasargianen* edo *Behi euskaldun baten memoriaren*.

Azkenik, ez nuke euskal HGLri buruzko panoramika hau bukatu nahi azpimarratu gabe memoria historikoari buruzko euskal obrek historiografia ofizialak isilpean utzitako ahotsak erdigunera ekartzen egindako ekarpena. Batetik, genero gatazkei dagokienez, erabateko garrantzia hartzen dute obra askotan eta emakumeen testigantza eta bizipenek badute enuntziatorako lekuri. Ildo horretan, emakume idazleen presentziak eragina izan du protagonista femeninoen agerpenean, eta horrekin batera, emakumeen memorien eta testigantzen errepresentazioan. Mintzagai ditugun obrek ikusgarri egiten dituzte emakumeek

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmissão da memória histórica na Literatura Infantil e Juvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

gatazka testuinguruetan jasandako zigorrak, baina bereziki, emakume izate hutsagatik jasotako zigor gehigarriak (sexu-erasoak, bortxaketak, buru soilketak edota bestelako zigor psikologiko eta publikoak). Bestetik, instituzio publikoak isiltzen saiatu diren hainbat gertaera salatzen dute literatur lanek, besteak beste, poliziaren tortura kasuak edo euskal preso politikoek eta haien familiek jasandako zigor gehigarriak.

Erreferentzia bibliografikoak

Arroita, Izaro eta Otaegi, Lourdes (Ed.) (2015). *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontraera historiko-politikoa*. Bilbo: UPV/EHU.

Colomer, Teresa (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual* (2. edizio berritua eta zabaldua). Madril: Síntesis.

Egaña, Ibon eta Zelaieta, Edu (Ed.) (2006). *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Kortazar, Jon eta Serrano, Amaia (Ed.) (2012). *Gatazken lorratzak. Euskal arazoan isla narratibean 1936tik gaurdaino*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Olaziregi, Mari Jose eta Ayerbe, Mikel (2016). El conflicto de la escritura y la reescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco. In Katarzyna Morszczyńska, Karolina Kumor, Ana Garrido eta Aránzazu Calderón (Ed.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánicas* (45-66 or.). Instituto de Estudios Ibéricos. Universidad de Varsovia.

Ruzicka, Veljka; Vázquez Celia eta Lorenzo, Lourdes (Ed.), (2005). *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil*. Universidad de Vigo.

Roig, Blanca-Ana; Lucas, Pedro eta Soto, Isabel (Ed.), (2008). *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil*. Xerais.

Roig, Blanca-Ana; Ruzicka, Veljka eta Ramos, Ana Margarida (Ed.), (2012). *La guerra civil española en la narrativa infantil y juvenil (1936-2008)*. Tropelias & Companhia y Servizo de Publicacións e Intercambio Científico.

Roig, Blanca-Ana eta Ruzicka, Veljka (Ed.), (2014). *The Representations of Spanish Civil War in the European Children's Narratives (1975-2008)*. Peter Lang.

Roig, Blanca-Ana; Soto, Isabel eta Neira, Marta (Ed.), (2016). *Reflexos das dúas Guerras Mundiais na LIX*. Edicións Xerais de Galicia.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). *Memoria historikoaren transmisioa euskal haur eta gazte literaturan / A transmisión da memoria histórica na Literatura Infantil e Xuvenil vasca*. In Marta Neira, Carmen Ferreira, Rocío García (koord.), *Voces da memoria na LIX* (105-133). Edicions Xerais De Galicia. ISBN: 978-84-1110-733-4.

Serrano, Amaia (2019). *1936ko gerra euskal nobelagintzan: memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* [Doktore tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/38590>.

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2021). Escribir desde los márgenes. Autoras que escriben sobre escritoras. In C. Duraccio (Ed.), *Escritoras y fronteras geosimbólicas* (395-410 or.). Dykinson.

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2024). Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal haur eta gazte literatura garaikidean. [Doktore tesia]. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/71427>.

Winter, Jay (2006). *Remembering War: The Great War between Memory and History in the 20th Century*. Yale University Press.